



**OSTADAR
S.K.T.**

34. Urteurrena



2016 - 2017

Con la llegada del verano se acaba la temporada deportiva y se baja el telón. Con esta fiesta fin de temporada cerramos y celebramos el 34 cumpleaños. Este último año, siguiendo la dinámica de estos últimos hemos visto nacer una nueva sección dentro del Club, y ya son 10, estamos hablando del deporte inclusivo y adaptado, un reto importante para todos nosotros en la integración de todas las personas dentro de la dinámica del deporte.

Las cifras a las que estamos llegando empiezan a ser serias, y es que semanalmente son casi 1000 las personas que hacen deporte a través de nuestro Club, todo ello con un presupuesto anual de 200.000€, se dice pronto para los tiempos que corren, una cifra que representa el presupuesto más elevado de nuestra historia.

En relación a nuestro pueblo estamos en un momento importante ya que parece que se pueden poner en marcha las obras de un nuevo espacio deportivo tanto para el fútbol/rugby como el atletismo. Esta instalación nos debe permitir por una parte entrenar en mejores condiciones, sin tanta saturación, y por otra parte que nuestros deportistas no terminen su jornada a una hora tan intempestiva durante todo el año. Esperamos que la toma de decisiones no se haga esperar y poder disfrutar de esos nuevos escenarios deportivos lo antes posible.

Tampoco nos queremos olvidar en este apartado al conjunto de personas que nos han dejado durante este año, personas cercanas y entrañables, que han aportado su granito de arena para impulsar el deporte en nuestra localidad, Ostadarren izenan mila esker egindako lanarengatik. Sirva esto, para animar a aquellas personas jóvenes que les gusta el deporte tanto el federado como el de ocio, se acerquen hasta nuestro local para poder formar parte de esta estructura deportiva, y echar una mano en la organización de las diferentes secciones, no es un trabajo excesivo, ánimo.


Para finalizar queremos aprovechar la ocasión y mandar nuestro agradecimien-

to a todos los sponsors, patrocinadores, y personas particulares (padres, madres, deportistas...) que con su apoyo permiten a este club seguir trabajando año tras año por una sociedad y un pueblo más deportivo.

KIROLARI ONENA

Azken bi urteetan Ostadarreko atezain izandako pilotariaren izena mahai gainean egon den arren, proiektzio askoko kirolaria dela pentsatzen genuen, eta pentsatzen dugu, horregatik *hurrengo urterako utziko dugu*, esaten genuen; baina, aurtan ez dago dudarik, **AXIER ARTEGAK** merezi du.

2016ko urtarrilean amateur izatetik profesionalek salto egin zuen pilotari aurrelariak eta duela bi aste 2.mailako Buruz Buruko finala irabazi zuen Iruñako Labriten. Lehen mailan jokatu duen lehen mailako kirolaria. Zorionak eta final asko opa dizkizugu.



Ostadarreko atezain fitxarako egin dako argazkia 2008an.

Udara iristear dagoela, kirol denboraldia bukatu eta teloa jaisten dugu. Denboraldi amaierako festa egun honetan 34. urteurrena ospatzen dugu. Azken urte honetan, aurreko urteetako dinamikari jarraituz, Ostadarren kirol atal berri bat jaio-tzen ikusi dugu eta jada 10 dira; kirol inklusiboa eta egokitua, erronka garrantzitsua guztiontzat kirolean pertsona guztien integrazioa ahalbidetzea.

Esku artean ditugun zenbakiak serioak dira, gure klubaren bitartez astero ia 1000 pertsonak egiten dute kirola eta urteko aurrekontua 200.000 eurokoa da, gure historiako zenbaki altuenak. Esatea erraza da, baina honi aurre egin behar zaio.

Herriari dagokionez, momentu garrantzitsua bizitzen ari gara. Futbola, errugbia eta atletismorako kirol gune berri bat Atsobakarren egiteko proiektua eginda

dago. Kirol gune honek entrenatzeko baldintza hobeagoak eskaintzeaz gain, gure kirolariek entrenamendu saioak gaueko ordu txikitik ez bukatzea ahalbidetu beharko luke. Lehenbailehen kirol gune berri batez disfrutatzea espero dugu.

Txoko honetatik, aurtengo denboraldian utzi gaituztenak gogoratu nahi ditugu, beraien lanari esker gure herrian kirola suspertzen lagundu digutelako. Ostadarren izenean, mila esker egindako lanarengatik. Kirol federatua zein aisialdikoa gustuko duten herriko gazteak gure kirol egituren parte hartzera animatu nahi ditugu. Kirol atal desberdinetan eskuak eta buruak behar ditugu, anima zaitetzte.

Bukatzeko, laguntza eskaini digun orori – esponsorrak, patrozinatzaileak, guraso, kirolari... - bihotzez esker mila, zuen babesari esker gure gizartea eta herria kirolariagoa egiten laguntzen duzuelako.

AUZOLAN SARIA

OKENDO ZINEMA TALDEA zazpigarren artea maitatzen dugun jende talde batek osatzen dugu. Lasarte-Oriako herritarrei kalitatezko zinema hurbiltzea da gure asmoa. 80. hamarkadan piztu genuen proiektorea eta denboraldi bat stand by-en egon ondoren hemen gaude berriro". Horrela aurkezten dira zinezale hauek.

Zuei esker herrian zine areto zaharrean hasi ginen zineaz gozatzen, gero kultur etxean, hasieran asteburuetan, gero ostegun gauetan, gaur egun ostiraletan eta nola ez, udako zinean! Tximua Irratiko "No me gustan los lunes" zineari buruzko irratsaioarekin ere zerbait ikasi genuen. Mila esker urte guzti hauetan herriaren alde egin duzuen lanarengatik, bai hasierako Okendo Zinema Taldekoei, baita egun zaudetenoi ere. Ez dadila proiektorea itzali!



Esta sección está de luto, y no podemos empezar de otra forma, ya que tenemos que poner en valor el trabajo desarrollado por Joxe Zapirain como miembro de este grupo. Desgraciadamente nos dejó



Lasa y Joxe Zapirain en el bolatoki

hace unos cuantos días y su hueco será difícil de rellenar. Goian bego Joxe. Pero el camino sigue y el resto de participantes de la sección recorren los diferentes pueblos de la provincia llevando nuestro nombre en las diferentes tiradas, ilusión no falta. Sería necesaria la incorporación de personas más jóvenes, tanto hombres como mujeres, para que esta sección tenga el futuro asegurado. Mientras tanto, la sección seguirá organizando las tiradas de San Pedro, y memorial Santi/Martín, además de las correspondientes a la propia competición guipuzcoana. Desde aquí hacemos un llamamiento a aquellas personas que lo deseen se acerquen a las instalaciones del bolatoki, prueben, disfrutarán.

KROSA

Beste behin, gure krosak harrera izugarria izan zuen, batez ere, txikien kro-sean. Lehen aldia da txikien Korrika Festak helduen krosak baino parte-hartzaile gehiago izan dituela; bost eta hamabost urte bitarteko 1010 korrikalarik parte hartu zuten, XXI.Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian berriz, 895ek izena eman zuten. Eta lehen aldia ere, patinatzaileak izan ditugula. Azken edizioan 20 bat lagun etorri ziren gonbidatuta zirkuitua probatzeko.

Txikien kro-sean bi datuk harritu eta aldi berean poztu gaitu: batetik, parte-hartze izugarria, 16 urtetan altuena, eta hau kadete eta infantil mailakoen parte-hartzeari esker izan da; eta bestetik, neska eta mutilen kopurua maila guztietan pare-

koa izan dela. Urterik urte, Korrika Festak indarra hartzen du eta izugarritzko kolorea eta zarata ematen dio kro-seko igande goizari. Ume hauek 16 urte izatean gure festa egunean parte hartzen jarraituko dutela espero dugu, herrian izugarritzko harrobia baitugu.

Lasarte-Oria Bai! Krosak, inguruan ditugun kro-sei gertatu zaien bezala, nabaritu du parte-hartzaileen beherakada. Baina, kopuruei garrantzia kendu eta beste edizio bati heldu diogu. Dagoeneko XXII. edizioa prestatzen hasi gara.

Lerro hauetatik gure esker ona lagundu duzuen guztiei -babesle, kirolari, guraso, ikastetxe, elkarte...- zuen laguntza ezinbestekoa baita.



Argazkia: Isaac F.

Tras haber iniciado la temporada con la dolorosa pérdida de 2 personas del club, como fueron Izaskun Arzallus y Aitor Uranga; los Beltzak, dando continuidad al proyecto iniciado unos años atrás, han logrado el éxito con sus jugadores.

Sub 14, campeón de Gipuzkoa

El Sub 14 del Lavie Beltzak, se ha proclamado campeón de Guipúzcoa. Destacar que el título no incumbe a Guipúzcoa en exclusiva, ya que en esa competición participan equipos de La Rioja, Vitoria y Navarra. Estos chavales del Lavie Beltzak, son entrenados por Cesar Vidal, Manu Pelaez y el Zarauztarra Ion Estrada jugador del primer equipo.



Argazkia: Beltzak

un poco por el número de jugadores, lograron una meritoria sexta plaza en la clasificación general.

Sub 16, finalistas de Euskadi

El equipo Sub 16 del Gure Etxea Beltzak, compuesto por la generación con la que se dio inicio a la Eskola de los Beltzak, tras quedar primeros de la liga, disputaron los clasificatorios del campeonato de Euskadi y jugando la final contra el Berabera, al que derrotaron en el campo de Plaiaundi en Irún. Próximo objetivo, el campeonato de España de Clubs. Los chavales, entrenados por Xabi Castaño, Gavi Gavilán y Gorka Fernández, están ilusionados por ese desafío que ya es considerado como un premio a su gran trabajo durante toda la temporada.

Sub 18, luchando cada partido

Los Sub 18 Gure Etxea Beltzak, limitados

Rugby Eskola

Que decir de nuestros "txikis", con las categorías Sub 12 y Sub 10 entrenados por Josemari Nuñez y con Iñigo Encinas como director de la escuela, dándolo todo en cada concentración y aprendiendo a compartir el tercer tiempo después de cada una de ellas. Destacaron en el torneo Carmen en Donibane Lohizune.

Destacar la presencia de jugadores en las diferentes convocatorias de las selecciones. Como principal exponente, Alex Saleta, que ha entrado a formar parte como alumno de la Academia de Formación de la Selección española, donde se les va preparando para llegar a ser parte, en un futuro, de la primera selección del país.



Argazkia: Beltzak

TENIS

Aurtengo denboraldia bukatzeaz dago eta kontentu egoteko arrazoiak ditugu esan dezakegu: batetik, zortzi eta hamasei urte bitarteko hamasei tenislari ilusioz eta seriotasunez ahalegindu direlako tenisaren sekretuak bereganatzen; bestetik, ikasturte honetan lortu ditugun aurrerapenak aipagarriak direlako; eta azkenik, lehen aldiz helduen taldea osatu dugulako. Honengatik guztiarengatik eta ohiturei eutsiz, ekainean denboraldiari amaiera emango diogu Tenis Jaiarekin. Bertan, tenis familiako kide guztiak elkartuko gara azken raketazoak jotzeko. Gogoratu, lehen urratsak eman ala sakondu nahi duen?



narentzat Tenis Eskolako atekak zabalik daudela!

TXIRRINDULARITZA



FECHA	SALIDA	KMS	FECHA	SALIDA	KMS
05-mar	Zumaia	60	25-jun	Vuelta Larraitz	80
12-mar	Itsasondo	65	02-jul	Guadalupe Jaizkibel	74
19-mar	Olaberria (Irun)	64	09-jul	Vuelta Regil	86
26-mar	Aldaba	58	16-jul	Deba	90
02-abr	Faro Hondarribia	65	23-jul	Lizarrusti	100
09-abr	Zaldibia	74	30-jul	Ormaiztegui	85
16-abr	Aizarna	72	03-sep	Garate - Meagas - Zumaia	64
23-abr	Altzagarate	72	10-sep	Bedaio	68
30-abr	Alto Itziar	80	17-sep	Iraeta	68
07-may	Artikutza	70	24-sep	Urkizu	54
14-may	Ziburu	85	01-oct	Berastegi	60
21-may	Mandubia	90	08-oct	Vuelta Aia	52
28-may	Ibardin	100	15-oct	Albistur	50
04-jun	Ondarroa	115	22-oct	Orexa	60
11-jun	Lierni	94	29-oct	Izaskun	45
18-jun	Otzaurte	115			

Irteerako ordua: 9:00 8:30 8:00

Ostadarreko zikloturistak aurten ere martxoan ekin diote denboraldiari. Aurten goan 2315 km egingo dituzte martxoa eta urria bitartean. Irteerak igande goizetan egingo dituzte. Argazkian ikus dezakezue noiz eta nora joango diren. Beraz, zikloturismoa gustuko baduzue bizikleta hartu eta Ostadarreko zikloturista taldearekin ateratzera animatu zaitezte.

Aupa ekipo!

PORRA



Lehen aldiz antolatu dugu Itzulia eta espero baino hobeto ateratu zen, 400 boletoetatik gora egin zenituzten. Giroko Porra aldizkaria inprentan dagoela amaituko da. Hurrengo Porra, TOURreko Porra, San Pedro jaiekin batera iritsiko da, uztailaren 1ean; boletoak eta txirrindularien zerrendak ekainaren 27an ohiko tabernetan utziko ditugu.

Porran parte hartzen duzuen guztioi eta nola ez tabernariei mila esker. Zuen laguntza oso garrantzitsua baita Ostadarren kirol egitasmoa aurrera ateratu ahal izateko.

SASKIBALOA

Hemen gaude gure 5. urtean, eta esaten den bezala "tantaka-tantaka" ibaia sortzen da. Aurtengo urtea erronkaz josita egon da, lehengo urteko denboraldi amaieran bilera luze batzuen ostean, erabaki garrantzitsuak hartu behar izan genituen, eta apustu handi bat egin gure kirolarien maila aukeratzeko. Gipuzkoako mailarik altuenean egon gara eta hori dugu emaitzak noraino iritxi garen ikusteko. Jokalari guztiek denboraldian egin duten lana goraipatu behar dugu, nahiz eta batzuentzat oso luzea izan den.

Aurten, sei talderekin ibili gara: parte-hartzeko eta errendimenduko kadete neskak, errendimenduko nesken bi junior taldeak eta probintzialeko senior neskak eta 3. probintzialeko senior mutilak. Nabarmena da nesken partaidetza. Saski Eskolak lehengo urteko gazte kopurua bikoiztea lortu du.

Lan askoko urtea izan da. Herrian saskibaloia sustatu aldera, ekimen desberdinak burutu ditugu, besteak beste, bi 3x3 Txapelketa antolatu ditugu, bata iazko urtarrian eta bestea aurtengo gabonetan, azken honek talde gehien jaso dituen edizioa izan da; eta bigarren urtez jarraian selekzioen topaketa ekarri dugu herrira; aurten kadete mutilak izan dira protagonista.

nistak.

Oso momentu onak bizi izan ditugu, eta ezingo genuke bakarrarekin geratu. Oso polita izan zen Saski Eskolako neska-mutilak Seleksioen topaketako atsedendian jolasten ikustea, edo errendimenduko junior taldeak berain artean maila gorenean jolastu duten derbia, edo juniorren final four-a. Emaitzetatik haratago, garrantzitsuena talde bakoitzaren exigentzia maila mantentzea da, bere jarraipenean, bai banakako, bai taldearen hobekuntza lortzeko. Honek, denborarekin, Gipuzkoako talde onenen artean egoitea ahalbidetuko digu.

Etorkizunari begira, espero dugu proiektu honek aurrera jarraitzea eta Lasarte-Oriako gazteekin batera kirol honi ahalik eta etekin handiena ateratzea. Gure jokalariei orain artean bezala lanean jarraitzeko esango genieke, hori baita arrakasta lortzeko bidea.

Iritxi da momentua atsedean pixka bat hartzeko eta pilak kargatzeko... baina lo hartu gabe, gainean baitugu 2017-18 denboraldia, hainbat ekintza erakargarri eta desafio ate joka.

Amaitzeko eskerrak eman nahi dizkiegu gure artean eta gure alboan egon zareten pertsona guztiei.



Baskonia-Barça ikustera joan ginen.

Aurten ere Ostadar SKT-k Korrikarekin bat egin du. Apirilaren 4ean KORRIKA gure herrira iritsi zen eta Ostadarreko Kirol Egokituko eta Ipar Martxako lagunek hartu zuten lekukoa. Ez zen giro, euri pean aritu ginen korrika, baina beti bezala oso hunkigarria izan zen. Korrikako furgoneta-
ren musika entzun orduko, denak urduri espaloitik errepidera salto egin eta bakoitzak ahal zuen zatia egin zuen. Baliante batzuk Errekalden hartu eta Zubietaraino heldu ziren. Biba zuek!



GURE ESKU



Ostadarreko zuzendaritzak maiatzak 7ko galdeketa-
ren alde agertu eta babestu zuen, interes publikoko gaietan erabakitze-
ko eskubidea eduki nahi dugulako; zer-nolako herrian bizi nahi dugun galde-
tuko zitzaigun eta horren gainean gure iritzia eman nahi genuelako. Herritar guz-
tiak animatu genituen erabakitze prozesu honetan parte hartzera, naiz alde, naiz kontrako bozka emateko. Gure bulegotik bostehundik gora lasarteoriatar pasa ziren bozkatzeko.

EUSKARAREN MARATOIA



Gu ere armairutik atera ginan! Ostadarrek iazko denboraldi amaierako festa Euskararen Maratoiari "Auzolan Saria" eman zion "30 urtez lasarteoriarrei armairutik irtetzen laguntzeagatik". Eta nola ez, Maratoian ere parte hartu genuen. Ipar martxako kideek sinkro bat egin zuten oholtzan eta elkarteko zuzendaritzak ume-
entzako herri-kirolak antolatu zituen.

Zorionak eta esker mila Maratoia antolatzeagatik, hurrengoan ere hor izango gaituzue.



En agosto de 2016 el Club acogió con ilusión la propuesta de crear una nueva sección de DEPORTE ADAPTADO E INCLUSIÓN. Desde entonces, las personas responsables de esta sección han ido dando grandes pasos, logrando crear una ESCUELA MULTIDEPORTIVA.

El objetivo de esta nueva sección es doble. Por un lado, damos respuesta a las necesidades de las personas con algún tipo de discapacidad, ofreciendo actividades deportivas adaptadas e inclusivas. Paralelamente, normalizamos la inclusión dentro del propio club junto con las otras secciones de Ostadar SKT.

El proyecto ha encajado muy bien en la filosofía de OSTADAR SKT y está dando sus frutos, consiguiendo la participación y el apoyo de cada vez más entrenadores/as y deportistas de todas las secciones del club. Nuestra idea es seguir en esta línea de trabajo, generando una ilusión compartida por todas las personas del club, a favor de la inclusión de las personas con discapacidad.

Orain arte egin ditugun ekintza nabarmenak hauek dira:

- Asteazkenero entrenatzen dugu, Maialen Chourraut Kiroldegian.
 - Saskibaloiko 3x3 txapelketan parte hartu dugu gurbil aulkiko modalitatean.
 - Inklusioaren Eguna antolatu dugu Okendo Plazan.
 - Gipuzkoako Atletismo Txapelketan parte hartu dugu.
 - Kirol Egokituko Ekitaldi ireki bat antolatu dugu UPV/EHU ikasleekin.
 - IES UNI Eibar-Ermuan izan gara sentsibilizazio eta formakuntza saio batean.
 - Korrikan parte hartu dugu.
 - Beste herriekin elkarlana egin dugu: Irun (Igande Sasoi) eta Andoain.
 - Atzegi elkarteak antolatutako Bolo txapelketan izan gara (Legazpiko Kirola Elkarrekin jardunaldian).
 - Atzegiko ElkarriOn futbol ekitaldian izan gara (Ostadar Futbol taldeak antolatuturik)
- Mila esker klubeko ateak irekitzeagatik.



Mendi saileko taldea osatu gabe jarraitzen dugun arren, mendizaleok gure jarduerarekin jarraitzen dugu: mendi txangoak, mendiko eskia, eskalada, alpinismoa, barrankismoa eta nola ez azken boladan, mendian zehar korrika. Duela 15 egun, XII. Martxa Luzea egin genuen: Aizarnatik 18 lagun abiatu eta 9 ordu eta erdi ondoren Lasarte-Oriara iritsi ginen, pixkat nekatuta baina pozik 40 km egiteko gai garelako oraindik. Oraingoan ere, Fati eta Joxeanen gidaritzapean. Eguna borobiltzeko Karrantxo eta Joxerra txefek prestatutako legatz earra afaldu genuen.

Iazko urrian berri ona jaso genuen Nepaleko Ama Dablam menditik. Gonzalo Zabalak mendizaleen artean munduko mendirik ederrenatzat jotzen duten tontorra zapaldu eta gure bandera eskuan zuela argazkia bidali zigun.

Azken urtetan bezala, abenduaren 31n urtea agurtzeko Erromeria antolatu genuen Buruntzako San Roke ermitan. Urterik urte, jende gehiago igotzen da Buruntzara txintorraren arrastoaren atzetik.



Udalarekin elkar-lanean aurtten ere Buruntzaldeko Ibilaldiaren Eguna antolatzen lagundu dugu. Eta aspaldi udalari rokodromo-indoor egiteko eskaerak argia ikusiko du udazkenean. Kiroldegitik Mitxelingo tenis pistetara eramango dutela zin egin digute.

Gogorarazi nahi dizuegu, Ostadar S.K.T-ko web gunean zuen mendiirteeren, igoeren, bidaien... informazioa eta argazkiak jartzeko aukera dezuela. Igoera zoriontsuak guztiontzat!



Argazkia: Gonzalo Zabala

Gonzalo Zabalak Ama Dablam mendia igo du

Lasarteoriatarra joan den urrian Nepalera abiatu zen Ama Dablam (6812m) mendia eskalatzeko asmoz. Bidean, zenbait gailur igo zituen aklimatatzeko: Khunde Peak (4.200m); Nangkar-Tsang (5.050m); Kala Patthar (5.500m) eta Island Peak (6.189m). Azaroaren 1n bigarren kanpamendu-

tik, 23:00etan abiatu zen gailurrerantz. Goizeko 6:40etan, Tenzing Dorjee sherparekin batera, mendirik ederrenaren gailurra zapaldu zuen eta Ostadarreko banderarekin argazkia atera. Gonzalok gure web gunean, www.ostadar@ostadarskt.eus, bidaia buruz idatzizakoa eta egindako argazkiak ikus ditzakezue.

Ipar Martxako taldea Ostadarren duela urte bete inguru hasi zen beste kirol atal bat gehiago bezala. Lau irakasle daude jardunean: Rosa, Begoña, Junkal eta Alex; eta beraien gidaritzapean 125 herritar daude.

Ipar martxa jarduera fisiko ona eta osasungarria da, haize zabalean egiten dena eta edozein adinetan zein egoeratan aritu daitekeena, bai bakarrik eta bai taldean. Baina, Lasarte-Orian, Ipar Martxa hori eta askoz gehiago da, herriko dinamika ezberdinetan txertatzen den jarduera soziala da, euskararekin eta bere zabalpenarekin lotura eta uztardura dituelarik.

Kirolaz haratago

Taldeak astean ordu t'erdiko bi entrenamendu burutzen ditu eta hilean behin irteera bat antolatzen dute. Aurtengo denboraldian Hendaian, Arditurriko meategietan, Aspanogik Donostian antolatu zuen martxan parte hartu zuten, Lasarte-Oriako mugak ezagutzeko ibilaldia, besteak beste. Kirol atal bezala, Ostadarrek berak antolatzen dituen jaietan ere parte hartzen dute, Kirol Egokituaren egunean, denboraldi amaierako festan, esaterako. Jarduera hauetaz gain esku hartze aktiboa dute herrian antolatzen diren ekitaldi batzuetan ere: Gure Esku Dago, Euskararen Maratoia, San Silbestre, erraustegiaren aurkako martxa... Oso talde dinamikoa da.

Ipar Martxaren onurak

Jarduera honen onurak nabarmenak, besteak beste, ondokoak dira: bastoiek ibilkera tentea eta ge-

rriko biraketa xumea eragiten dute-nez, lunbarretako mina kentzen da; bastoiek arindu egiten dute aldaken, belauenen eta orkatilen lurrarekiko talka; bulkada e manez ibiltzen denez, soineko giharrak lantzen dituzu, gure hezurdura mugitzen dituztenak indartuz eta horrela hernia-diskoa, osteoporosia eta abar ekidinez; psikomotrizitatea hobetzen du; eta gaur egun hain boladan dagoen Mindfulnessa eskuarki praktikatzen da, esku, oin eta abarren mugimenduan arreta jarri behar baita, orain eta hemengo unea biziz, jabetze osoz.

Ikastaroak

Azken bi urteetan herrian zehar gero eta jende gehiago ikusten da bastoiak eskuan dituela pasiatzen. Erraza dirudien arren, teknika ikastea ezinbestekoa da. Horretarako gure monitoreek ikastaroak antolatzen dituzte. Gutxieneko prestakuntza hiru ordukoa da eta prezioa 30€. "Oinarrikoa da jarduera honek osasun fisiko zein mentalerako eskaintzen dituen berebiziko onurez baliatzeko. Izan ere, ez da soilik bi bastoiekin ibiltzea, baizik eta era zehatz batean ibiltzea eskatzen du: gorputzaren jarrera, besoena, eskuena, etab.". Eta hurrengo denboraldiari begira, beste 4 ikastaro gehiago antolatu nahi ditugu, Udalaren laguntzaz, 55 urtetik gorako pertsonentzat.

"Hauxe da, Ostadarretik egiten dugun gure ekarpentxo, lasarteoriatarren, bai emakumeen, baita gizonen osasuna hobetze aldera. Merezi duen erronka da, zalantzarik gabe".



Tercer año de la sección de fútbol-sala federado en Ostadar. Hace tres temporadas empezamos con un equipo y esta última hemos tenido cuatro equipos federados: dos juveniles, un equipo en 1ª Territorial y otro en liga Nacional. Respecto a los resultados deportivos de esta temporada, decir que los dos equipos juveniles se merecen un notable alto por haberse clasificado para la fase final y además tener a dos jugadores en la convocatoria de la selección guipuzcoana: Oscar Lanzas y Unai Anguiano. En cuanto a los equipos de categorías senior – el territorial y el nacional- comentar que han salvado la categoría y la plaza a dos partidos de finalizar la temporada.

El gran éxito de esta temporada, lo hemos tenido fuera de las ligas federadas; hablamos del **Torneo Infantil de Navidad**. La ilusión y ganas de jugar que nos han transmitido estos chavales hacen que sigamos pensando en ellos.

Y no nos olvidamos del **Torneo Local**, la madre de todo esto. Ya son 34 temporadas Con Gorka Redondo e Imanol Azkue en la organización, se siguen cumpliendo las expectativas, pero cada año parece que tenemos menos equipos, pero el nivel de estos es mayor. Esto que no pare.

Consolidación del fútbol-sala

Todo el trabajo que estamos realizando está enfocado a conseguir el objetivo principal, que no es otro que mantenernos en Liga Nacional. Pero para ello nos hace falta una cantera –que la estamos trabajando con las categorías inferiores- y recursos económicos, que nos lo estamos currando, también. Resumiendo, con la excusa de mantener la punta del iceberg, lo que estamos consiguiendo es que el fútbol-sala se consolide en la localidad. Esta última temporada en números: 50 jugadores federados, 10 personas ejerciendo de entrenadores, delegados, coordinadores..., más de 150 jugadores repartidos en 13 equipos en el Torneo Local y 280 chavales de entre ocho y quince años en el Torneo de Navidad. Ahí queda eso.

Para finalizar, dar las gracias a todos los que nos ayudan a que esto siga adelante, patrocinadores, colaboradores y sobre todo a la gente que no se ve pero que realiza un trabajo espectacular. Muchas veces nos cegamos por hacer frente al presupuesto, la verdad que da miedo, pero tenemos claro que por mucho que tengamos dinero si no tenemos manos para currar, ni cabezas para pensar esto desaparece. Por eso tod@s sois necesari@s. Mil gracias a tod@s.



Oscar Lanzas



Unai Anguiano





Alebin B



Errendimenduzko alebina



Lehenengo infantila B



Lehenengo infantila A



Infantil Txikia



Ohorezko infantila



Lehenengo kadetea B



Lehenengo kadetea A



Ohorezko Kadetea



Lehenengo juvenila



Ohorezko juvenila



Nesken erregionala

ENORME OSTADAR!!!!

Aurten 14 futbol talde eta futbol eskola aizan ditugu. Ditugun talde kopuru aina ditugu emaitzak eta egoerak. Aipatzekoak dira nesken erregionalak eta ohorezko juvenilak burutu duten denboraldia. Idazten ari garen momentuan ez dakigu igoera lortuko duten, dena den, denboraldi borobila burutu dute. Ohorezko erregionaleren egoera bestelako da, pena litzateke kategoría hau galtzea. Gure herriak kategori

hau merezi du, baina hau kirola da eta ez dago ezer bermatua. Gainontzeko taldeek helburuak bete dituzte, batzuek soberan. Ez dugu ahaztu behar gure taldeek merezi ditugun kategorietara eramango gaituztela.

Azpimarratzekoa da, klubeko historian lehen aldiz klubetik atera den jokalaria batek Errealeko 1go mailara igotzea lortu duela, Ander Bardají. Gora zu!

FUTBOL ESKOLA 2017-2018 denboraldirako izen ematea

Ekainaren 12tik 23ra, 18:00etatik 20:00etara Ostadarreko bulegoan, 2007-2008-2009 urteetan jaiotakoentzat.

ESCUELA DE FUTBOL Inscripción temporada 2017-2018

Del 12 al 23 de junio, en la oficina de Ostadar de 18:00 a 20:00 de la tarde, para los nacidos en 2007-2008-2009.

2016-2017 DENBORALDI AMAIERAKO FESTA

EKAINAREN 3AN

11:00 – 12:30. Kirol guneetan jolasak: bolo eta toka, futbola, areto-futbola, saskibaloia, errugbia, tenisa, ipar martxa...

12:30. Sari-banaketa: frontoian
Auzolan saria: **OKENDO ZINEMA TALDEA**
Kirolari onenari saria: **AXIER ARTEAGA**
Ostadarreko jokalaria jatorrenei sariak

13:00. Tercer Tiempo/Hirugarren denbora: frontoian.
Jolasetan parte hartu duzuen guztientzat.

Urtero lege, denboraldiari amaiera emateko festa batekin bukatuko dugu. Ekainaren 3an goizez, Mitxelingo instalazioetan Ostadarreko kirol guztiak praktikatzeko eta jolasteko aukera izanongo duzue.

Anima zaitetze, ondo pasako dugu eta.

Como cada año, despediremos la temporada con una fiesta. Este año nos quedamos en las instalaciones de Michelín. El 3 de junio por la mañana, podréis practicar y jugar los distintos deportes de Ostadar.

¡Anímate, seguro que nos lo pasamos bien.

www.ostadarskt.eus



ostadarskt



ostadarskt



OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldi-
zariari, TXEMA VALLESi eta baita gure babesle
guztiei ere, denboraldi honetan eskainitako
laguntzarengatik.

